

Aniztasunaren Kudeaketa Araba ESI

Araba ESIan aniztasunaren kudeaketa gure Xedea, Ikuspegia, Balioak eta kode Etikoan definituta dauden konpromisoak betetzeko funtsezko faktorea dela deritzogu. Araba ESIko Zuzendaritzak beharrezkoa den politika bat definitu egin dugu, erreferentzia-marko gisa, erakundearen aniztasunaren kudeaketa sortu, hedatu eta gauzatzeko. Bestalde, bere diseinu eta inplementazioan gure konpromiso eta parte-hartzea erakutsiko dugu, modu argi, zuzen eta eraginkorrean.

Legezko araudia errespetatze aldera, eta gaur egungo marko estrategikoan, Araba ESIk hurrengo printzipioak onartzen ditu aniztasunaren kudeaketaren arloan:

- Aukera-berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua ESIko baloreak gisa sentibilizatu.
- Askotariko pertsonalaren eraketan aurrera egin, hainbat profiletako integrazioa sustatuz (haien generoa, sexu-orientazioa, arraza, nazionalitatea, etnia, erlijioa, sinesmenak, adina, desgaitasunak etabar aparte utzita).
- Inklusioa sustatu, integrazio eraginkorraren bidez, edozein motatako diskriminazioa (zuzeneko edo zeharkakoa) saihestuz.
- Langile Zuzendaritzako politika guztietan, zeharkako faktore gisa, aniztasuna kontuan hartu, arlo honetan hartzen diren erabaki guztien oinarrian egon dadin.
- Kontziliazioa sustatu lana, familia eta aisialdi-denboraren orekaren bidez, langile guztien lan-bizitza eta familia-bizitza elkartzeko mekanismoak ezarri.
- Bezeroen aniztasuna onartu eta haien profilak ezagutu, aniztasun hori berrikuntza eta garapenaren iturriak baitira.
- Gure konpromiso hau langile, hornitzaile, administrazio, enpresa-erakunde, sindikatu eta beste gizarte-eragileei zabaldu eta komunikatu.
- Diskriminazio ezari buruzko laguntza-ekintzak, zein aniztasun-politikei esker lortzen diren emaitzak erakundearen urteko memorian adierazi.
- Bai giza baliabidetan, bai merkatu-kokapenean aniztasuna erakusten duen aniztasunarekiko gestio-plana landu, beti ere, Araba ESIren errealitateari egokituz.
- ESI barruko elkarbizitzari buruzko adostuta eta argi dauden barne-arauak landu.
- Hainbat talderen kudeaketaren berezitasunak erakusten dituen, eta, ESIren aniztasuna adierazten dituen kudeatzaileak definitu, eta, halaber, izendatzen dituen prozesuak diseinatu. Pertsona horiek behar dituen gaitasunak kontuan hartuko dira beti.
- Langileek dituzten behar espezifikoak komunikabideak egokitu ezagutza-transferentziaren barne-fluxua sustatzeko, proposamen, iradokizun eta elkarriketarako guneak sortuz, haiek, erakundearekin batera, lana eta elkarbizitzari buruzko ideiak sor ditzatela.

2019ko otsailaren 25a